



Zubierrementaria (-a) *etxebizitza*

Aldacrak: Errementaria
Ahozkoa: Errémentai / Errémentaridxe

“... la casería rústica titulada Zubirrementeria, ... situada en la barriada de Murgoitio de la Anteiglesia de Berriz, que comprende con sus huertas, un poco de heredad llamada Echeoste, zaguan y horno cuatrocientos veinte y cuatro estados, equivalentes a mil seiscientos trece metros de cabida, y la que se compone de sus correspondientes pisos divisiones y habitaciones...”
DJE 3/36 or. (1871)



43° 9' 49"

2° 34' 30"

Berriz Irudian / J.A. Ramos

Nahiz eta aurkitu dugun aipamenik zaharrena 1775ekoa izan (*Zubi Rementeria*), badakigu *Zubierrementari* baserria zaharragoa dela, gutxienez XVI. mendeko aztarnak antzematen baitira baserriaren hormetan. Dokumentazioan izen bera mantendu da aldaera gutxiarekin: (*Zubierrementeria* eta *Subia errementaria*). Auzokoen artean, aldiz, arrunta izan da oso beste izen batzuekin aipatzea, adibidez: *Errémentai* eta *Errémentaridxe*.

Baserri etxe handia, isuri biko teilatuduna. Interbentzio handiak izan ditu, fatxada nagusiarri egindako begiratu soil batek ondo adierazten duen moduan. Aitatuko genituzke harri desberdinen erabilera, ganbarako balkoiairen hegala- ren hormigoia edo ezkerraldeko obrak. XVI. mendeko horma izan daitekeena ere ikus daite-

ke fatxada nagusiko eskuma aldean, eta etxearen taxuketa XVIII. mendekotzat har genezake oso eskema onartua zelako daukana, hots, erdiko gorputzean arku, gainean leiho edo balkoiak, eta aldeko gorputzetan, leiho bana, denbora desberdinetan zulatutakoak. Baina pisu nagusiko balkoi buruan dagoen inskripzio batek XIX. mendearen erdialdean egin zen obra baten berri ematen digu eta segurutik balkoia bera zabaltzea eta fatxada berrantolatzea izango da gogorarazten duena, beste esaldi esanguratsu batzuekin batera. Honela dio: *EN CASA DEL QUE JURA NO FALTARA DESVENTURA. EN ESTA NO SE CONSIENTE HABLAR MAL DEL AUSENTE. ESTA OBRA HIJO JUAN VICENTE DE ZENGOTTIA VENGOA. AÑO DE 1845.*

toponimia

Baserri honen izenaren osagai ditugu: “zubi” hitz arrunta, kokapena adierazten duena, eta lanbidea adierazten duen ‘errementari’ hitza. Horrela, izenak “zubiaren ondoko errementaria” esan nahiko luke. Ahoz, arrunta da lehenengo zatia desagertzea, ez dagoenean nahasteko aukerarik, eta gauza bera gertatzen da Barinagako Errementari etxearekin. Alabaina, zehatz-mehatz zein etxe den jakin behar zenean, izen osoa erabiltzen zen, eta horrela sortu zen Barinagaerrementeria deitura luzea. Errementariak burdina lantzen zuten, tresnak edo erremintak sortzeko, hala nola abereen ferrak (behor eta zaldienak edo idi eta behienak).